

Bigilatu eta informatu. Nafarroako trenbide-langileen garbiketa-prozesuko agente errepresiboen jokabideak, interesak eta kontraesanak (1936-1942)



AITOR CARRILLO PÉREZ

(Universidad Pública de Navarra / Nafarroako Unibertsitate Publikoa)

[aitor.carrillo@unavarra.es • <https://orcid.org/0009-0007-8450-6525>]

Arazketa baten anatomia¹

1936ko uztailaren 17ko estatu-kolpeak Espainia bitan zatitu zuen. Armada altxatuak lurralde penintsularraren zati handi bat menderatu zuen, Nafarroa eta Araba gehiena barne. Gipuzkoa, Bizkaia, Kantabria, Asturias, Katalunia eta Valentzia, besteak beste, Errepublikarekiko leial mantendu ziren (Arostegui, 2006: 92-94. or.; Preston, 2011: 196. or.; Thomas, 1976, 239-240. or.). Bai zonalde altxatuan baita errepublikanoan ere, garbiketa-prozesuak abiatu ziren funtzionarioen eta zerbitzu publikoen emakidadunak² ziren enpresetako enplegatu guztien aurka, trenbide-langileak kasu. Honen arabera, haien aurrekari eta jarrera politikoak ikertu ostean, Aginte Militarrek edo, 1939tik aurrera, enpresa-epaitegi batek hiru aukeren artean erabakiko zuen: lanera itzuli, zigorrarekin edo zigorrik gabe,³ edo kaleratua izan. Kolpistek garatutako indarkeria mota guztiek agintari berrien aurkako oposizio ororen paralisia eta erauzketa soziala lortu nahi zuten, baita kolpearen inguruko gizarte-kohesioa ere (Gómez eta Marco, 2011: 59-76. or.), Molak 1936ko apirilean emandako aginduetan zehaztu bezala (Sánchez Pérez, 2013). Ezkerreko aurkari politikoek, baina ez haiek soilik, garbiketaren ondorioen gehiengo pairatu zuten.⁴

Depurazio-prozesu honek hainbat epe izan zituen: hasteko, Aginte Militarrek edo, 1939tik aurrera, enpresa-epaitegi batek espedientea irekitzea. Ondoren, agente errepresiboen, hau da, langileari buruzko informazioa ematen zuten erakundeen (Norte enpresa, Guardia Zibila, FET-JONS era alkatetzak) balorazioa, bereziki lehenengo bienak, analisi honen oinarriak izango baitira. Txostenek, orokorrean, hiru zati zituzten: «antecedentes y conducta social y política con anterioridad al 18 de Julio de 1936»; «antecedentes y conducta social, política y militar desde el 18 de Julio de 1936 hasta el 1º de Abril de 1939»; eta «comportamiento del interesado a partir del término de la guerra». Hauetan, langilearen lan-portaera, militantzia eta ideologia politiko zein sindikalak, eta baita gerra aurreko, bitarteko zein osteko portaera ere ikertzen ziren. Informazio hau jaso eta baloratu ostean, Aginte edo epaitegiek enplegatua berriro itzultzea proposa zezaketen, edo kargu jakin batzuk

* [Enviado 2025-05-22 • Aceptado 2025-10-29] • DOI: <https://doi.org/10.58504/rgu.39.8>

inputatu. Lehenengo kasuak prozesuaren bukaera suposatzen zuen, langilea lanera bueltatuz. Bigarrenak, ordea, prozesua nabari luzatzen zuen, kargu-zerrenda, langilearen deskargua eta ia beti zigortzailea zen epaia gehituz.

Nafarroan lan egiten zuten trenbide-langileen depurazio-espeditenteen azterketaren bidez, bereziki enpresak eta Guardia Zibilak pertsona hauei buruz egindako balorazioen analisia garatzeko asmoa dut. Hasteko, testuinguru bezala, arazketa-prozesu ugarietan, bai trenbidekoak bai beste ogibideetakoak ere, ezarritako zigorehunekoak alderatuko ditut. Gero, balorazio txostenak lau taldetan bereizi (positiboa, negatiboa, ondoriorik gabea, ez daki/ez du erantzuten [ed/ede]), agenteen eta langileen udalen arabera sailkatzeko. Militantzia elementu erruztatzailetzat hartua izan bazen, eta zein heinetan, ondorioztatu nahi dut, bi agente nagusien balorazioen ehunekoetan zer nolako eragina izan zuen jakiteko ikerketan lehen pausu bat ematearren. Azkenik, espeditenteetan kuantitatiboki garrantzitsuenak diruditenen elementu erruztatzaileen (ezkerreko ideologia eta militantziak, lan-portaera zein jarrera sozialaren⁵ balorazioak kasu) ikerketa sakonagoa egingo dut.

Jarraitu aurretik, argi ditzagun alderdi metodologiko batzuk. «Ideologiak» sinpatia politikoak barne hartzen ditu, zentzu zabalean, espeditenteak ugaritan «ideologia ezkertiarra/eskuindarra» aipatzera mugatzen baitira. Ezkerreko militantziak sozialismoaren (PSOE, UGT), komunismoaren (PCE, SRI, UHP), anarkismoaren (CNT), errepublikanismoaren (PRR, ORGA, AR, UR, IR, PRRS) eta euskal nazionalismoaren (EAJ, ELA) familia ideologikoak dira. Euskal nazionalismoa, kontserbadorea izanagatik ere, talde honen barnean sartu dut gerran Errepublikaren alde izan zuelako, ondorengo errepresio frankista pairatuz. Erabaki bera hartu dut Alderdi Errepublikano Erradikala (PRR) bezalako zentro-eskuineko alderdiekin, honen errepublikazaletasunak kideetako asko errepresalien helburu bihurtzeagatik.⁶ Lan-jarrerak langileak lanean izandako portaerari erreferentziak dira, «lan-jarrera ona» aipatzera ia mugatuak. Portaera sozialarekin, jarrera zein portaera sozialari buruz egindako erreferentzia oro barne hartzen dut, nahiz eta hau bezalako prozesu batean publikoa eta pribatuaren arteko mugak oso argiak ez izan, aurkako edozein informazio lortzeko helburua baitzegoen. Ezaugarri honen balorazioak, baita beste guztienak ere, oso laburrak izan ohi ziren, «portaera/jarrera ona», edo *mutatis mutandis*, idatzi baino ez.

Zein izango da txostenak aurreko motaren arabera sailkatzeko erabiliko dudan oinarria? Agenteek erabilitako irizpideak eta legeria bera.⁷ Txosten positibo bat ezaugarri guztiz positiboak, edo gehienbat, aipatzen dituena da, lan-portaera ona, jarrera soziala ona, eta eskuineko ideologia zein militantzia bezala. Txosten negatibo bat aurkako kasua da, lan-portaera txarra, jarrera soziala txarra, eta ezkerreko ideologia zein militantzia izendatzen baditu, baina ñabardurak daude eta aipamen orok ez zuen garrantzia berbera; ez zen gauza bera PRRko edo PCEko kidea izatea, oinarritzko militantea edo goi kargua izatea, ezta sozialista «erradikala» edo moderatua izatea. Ezaugarri jakin batzuek txostenean zuten kokapena garrantzitsua zen

ere, ezaugarri bat egozten zitzaion larritasunaren froga argia baitzen zerbitzu-orri akatsgabea deskribatzea, bukaeran militantzia gain-gainetik aipatuz, edo alderantziz egitea. Aldiz, ondoriorik gabeko txosten batek ezaugarri positibo eta negatiboan antzeko kopurua edukiko du, beti portaera ona izan zuen UGTko militante bat, kasu. Honen harira, oso garrantzitsua izan zen 1940ko zigor-legeriaren errebisioa: honen ostean, alderdi edota sindikatu bateko kidea zigortzeko arrazoi automatikoa izateari utzi zion, betiere langileak parte-hartze aktiborik izan ez baitzuen edo soilik zaintza armatuak egitera mugatu baitzen. Legeriaren izaera totalizatzailean ñabar-dura bat izan zen, honek eragiten ari zuen eskulan eskasia konpontzeko asmoarekin (Muñoz Rubio, 2009: 209).

Nire iturri nagusia Espainia Iparraldeko Burdinbideen Konpainiak (Norte), RENFE 1941etik aurrera, 1936-1942 bitartean Nafarroan bideratutako 1.252 garbiketa espedienteak dira. Gaur egun, Salamancako Oroimen Historikoaren Dokumentu-Zentroko (CDMH) Depurazioaren Trenbide-Agiritegian (AFD) gordetzen dira fisikoki, baina hauen gehiengoan kopia digitalizatuak Nafarroako Oroimen Historikoaren Dokumentu Funtsaren baliabideen parte da, biek sinatutako hitzarmen baten harira.

Egoeraren azterketa

Trenbide-langileen garbiketa profesionalaren ikerketaren hasiera azken mende laurdenean zehar errepresio kolpista zein frankista jorratzen duen historiografiak bizitako «aurrerapauso kualitatiboari» esker eman da, «en el momento en que no es tan importante saber cuánto sino cómo se moría, y se vivía, en la España de la guerra y la posguerra» (Rodrigo, 2001: 156. or.). Baina ez du, esaterako, maisumaistren depurazioak (Morente, 1997; Berruezo, Casanova eta Ema, 2023; Ostolaza, 1996; Fernández eta Agulló, 1999; Rodríguez Barreira, 2015) edo estatu-mailako (Cuesta, 2009; Bordes, 2009) zein probintzia-mailako (Ipiña, 2017a, 2017b, 2017c; Gómez Calvo, 2013; Barruso, 2007) funtzionarioenak izandako aurrerakuntza bera bizi.

Trenbideen arazketaren ikerketa 2006-2007. urteen bitartean hasi zen, Renfe eta ADIFeko administrazio kontseiluek «Burdinbideetako langileen garbiketa Gerra Zibilean eta frankismoan (1936-1975)» izeneko proiektu bat bultzatu zutenean, Lehendakaritza Ministerioak Gerra Zibilaren eta frankismoaren biktimei buruzko ekintzetarako zuzendutako dirulaguntzen barne. Proiektuari ekiteko, Espainiar Trenbideen Fundazioak (FFE) Trenbideetako Historiaren Programa sortu zuen, Miguel Muñoz Rubio, Raquel Leton Ruiz, Leticia Martínez García eta Francisco Polo Murielek osatutako lan taldea. Haien zeregina Burdinbideetako Artxibategi Historikoan (AHF) gordetako 76 572 garbiketa espedienteen analisisia zen. Denborak aurrera egin ahala, erreferentziatzko doktore-tesi batekin bukatu zuen (Polo Muriel, 2015). Tokian tokiko analisiak, berriak ez badira ere (Olaizola, 2009; Santa Marina, 2009), azken bost urteetan aurrerakuntza nabariak izan dituzte (Fernández

Pizà, 2023; Gorini eta Caballé, 2024), trenbidean lan egiten zuten emakumeen esperientzia propioaren analisiarekin batera (Memoria Histórica Ferroviaria, 2021; Moreno, Muñoz Rubio eta Polo Muriel, 2023).

Nafarroari dagokionez, errepresio frankistaren adar ugarietan aurrerapen itzelak eman badira ere (AKT, 2018; Jimeno Jurío, 2020a, 2020b, 2021a, 2021b; NO-HDF, 2025; García-Sanz Marcotegui, 2007, 2012; García-Sanz Marcotegui eta González, 2015, 2019, 2021, 2023; Urrizola, 2017), trenbideetako langileen garbiketarena duela gutxi hasi zen. Benetako eztanda 2022-2023. urteetatik aurrera eman zen, bi fronte ezberdinen garapenarekin: batetik, Altsasuko geltokia (Aldave et al., 2023; Carrillo, 2024a, 2024b; Oviedo et al., 2025), Nafarroan gogorrenen zigortutakoa; bestetik, Erriberako eta Sakanako geltoki ezberdinen analisi konparatiboa (Carrillo, 2023; Carrillo eta Rodríguez, 2024). Bi zonalde hauetan emandako lan-zigorren⁸ eta lanez kanpoko errepresioaren alderaketaren bidez, tokian tokiko dinamika eta logikei buruzko ondorioak lortu nahi ziren.

Gerora, agente errepresiboek idatzitako txostenetan jarri zen arreta (Carrillo, 2024a; 2024b). Hori dela eta, lan hau *Perpetrator Studies* edo biktimarioei buruzko ikerketen parte bezala har dezakegu.⁹ Ez da gai guztiz berria, Espainian Alberto Reig Tapiak (1982) eta, Nafarroan, AKTk (2018 [1986]) jadanik jorratu baitzuten, baina lehen pausuak mende honen hasieran eman ditu. Erresuma zaharrean, biktimarioen ikerketaren adibiderik argiena Fernando Mikelarenarena (2015, 2025) da, karlista zein falangisten arduradun nagusietan, eta haien exekutazaila eta kolaboratzaileen legio ezezagunean, arreta handia jarri baitu. Krimen larrienen eragileen izen propioez haratago, Fernando Mendiolak (2017) gai bera jorratu du, gerra eta gerraosteko burdinbideetako bortxazko lanetan, baita Cesar Layanak ere (2021), Erantzukizun Politikoen Nafarroako Eskualde Auzitegiak gidatutako errepresio ekonomikoan. Historiografiatik kanpo, genealogia eta kazetaritza kronikaren arteko erdibidean, *Gurea falangista zen* liburuko azken kapituluan Alberto Barandiaranek (2021) bere aitona Pablo Amillanoren historia kontatu zuen, aitona maitekorraren eta Altsasuko sozialisten borroera izan zenaren irudiak kontrajarriz. Borroerokiko interes berri hau estatuan ematen ari denaren isla da, eta honen adibide da *Rúbrica Contemporánea* aldizkarian indarkeria-egileei buruzko monografikoa, 2025eko maiatzean argitaratua eta Miguel Alonsok koordinatutakoa.¹⁰

Garbiket(ar)en ehunekoak

Testuinguruari dagozkion oinarri batzuk behin finkatuta, has gaitezen garbiketa-prozesu ezberdinetan emandako zigor-ehunekoak alderatzen. Nafarroan, trenbide-langileen % 87,14a lanera zigorrik gabe itzuli zen, eta beste % 12,86a zigorrarekin itzuli edo kaleratua izan zen. Lehenengo taulan ikus daitekeen bezala, Iruñeako (296), Castejóngo (262) eta Tuterako (91) ehunekoen oso antzekoa da, Nafarroako geltoki nagusietako hiru. Altsasurekin (178) alderatzekotan, aldea oso argia da, han soilik langileen % 51,12a lanera zigorrik gabe itzuli baitzen, beste % 48,88ari lan

zigor bat inposatuz¹¹ (Polo Muriel, 2015: 411-459. or.). Estatu kolpearen lehen egunetan herriko ezkerreko gizonen ihesaldi masiboa (Oviedo et al., 2025; Layana, 2021: 331. or; Ayerra, 2002: 49-50. or), geltokiko langileriaren heren bat inguru barne (Aldave et al., 2023: 8-11, 17. or; Carrillo eta Rodríguez, 2024: 128-140. or.; Carrillo, 2024b: 69-72. or.), landua izan da, ehuneko desberdintasun izugarria alde-egitearekin lotura zuzena izan zuela ondorioztatuz. Hau da, geltokien kokapen geografikoak garrantzia itzela izan zuen geroko lan-errepresioan. Horregatik, Nafarroako batezbestekoarekin baino, Altsasuk kantauriar kostaldeko beste geltoki batzuekin antzekotasun handiak ditu, Avilés (Asturias) eta Reinosa (Kantabria) bezala, hiruetan trenbide-langileen zati handi batek Errepublikaren gerra-ahaleginean parte hartu baitzuen.

1. Taula. Nafarroako lau tren geltoki nagusietako garbiketa-espeditteen emaitzak (ehunekoetan)

	Iruñea	Castejón	Altsasu	Tutera	Nafarroa
Zigorrik gabe itzuli ¹²	% 91,86	% 94,96	% 51,12	% 87,91	% 87,14
Zigorrarekin itzuli	% 3,05	% 3,94	% 21,91	% 7,69	% 6,35
Kaleratuak	% 5,08	% 1,91	% 26,97	% 4,39	% 6,5

Iturria: Polo Muriel, 2015: 411-459. or.

2. Taula. Trenbide-langileen kaleratze ehuneko ezberdinen arteko alderapena.

	Kaleratzeak ¹³
Altsasu	% 26,97
Nafarroa	% 6,5
Reinosa	% 20,83
Avilés	% 22,94
Deba-Urola trenbidea	% 50
Trianoko trenbidea	% 25,3
Explotación de Ferrocarriles por el Estado	% 13,9
Bartzelonako Trenbide Metropolitanoa	% 15
Katalunia (bide argala)	% 22,81
Mallorca	% 8,13-% 17,31 ¹⁴
Norte	% 13,11

Iturria: Polo Muriel, 2015: 411-459. or.; Olaizola, 2009: 21. or.; Santa Marina, 2009: 12. or.; Gorini eta Caballé, 2024: 93-98. or.; Fernández Pizá, 2023: 104. or.

Zabal dezagun analisi hau Nafarroatik kanpoko trenbide garbiketetara. 2. taulak islatzen duen bezala, Altsasun kaleratutako langileen ehunekoa (% 26,97) Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatutako Trianoko trenbidearen (% 25,3) oso antzekoa da. Aldi berean, Obra Publikoen Ministeritzak kudeatutako *Explotación de Ferrocarriles por el Estado*ren (% 13,9), Norte Konpainiaren (% 13,11) eta Bartzelonako Trenbide Metropolitanoren (% 15) bikoitza inguru da, baita Deba-Urola trenbidekoaren (% 50) erdia ere. Dena dela, azken bi hauetatik ezin dugu ondorio sendorik atera: Bartzelonan, langile kualifikatu eta beharrezkoenentzat beste zigor batzuk erabili

ziren; Deba-Urolan, aldiz, aurkakoa, trenbide hark bidaiari gutxi baitzituen, eta enpresak 15 urtez garatzen saiatzen zeraman plantilla murrizketa abiatu ahal izan zuelako. Avilés (% 22,94) eta Reinosan (% 20,83) emandakoen antzeko ehunekoak da, baita Kataluniako bide argaleko trenbideena (% 22,81) ere. Baina Nafarroako batezbestekoaren (% 6,55) oso ezberdina da, nahiz eta hau Mallorcakoaren gutxiengoa antza handia izan (% 8,13).

3. taula. Estatu osoko arazketa-prozesu ezberdinetan emandako zigor ehunekoak

	Lan-zigorrak
Nafarroako burdinbidea	% 12,86
Norte	% 33,24
Posta (Nafarroa)	% 29,06
Nafarroako irakasleak	% 25,55-% 30,98 ¹⁵
Gipuzkoako irakasleak	% 25
Valentziako irakasleak	% 27,98
Bizkaiko Foru Aldundiko funtzionarioak	% 60,45
Posta (Gipuzkoa)	% 57,28
Posta (Bizkaia)	% 59,62
Posta (zonalde altxatua)	% 30,45
Posta (zonalde errepublikanoa)	% 36,55
Posta (batezbestekoa)	% 34,72
Epaileak	% 14 ¹⁶
Fiskalak	% 22 ¹⁷

Iturria: Polo Muriel, 2015: 411-459. or.; Bordes, 2009: 265-272. or.; Berruezo, Casanova eta Ema, 2023: 296-297. or.; Ostolaza, 1996: 139. or.; Fernández eta Agulló, 1999: 209-215. or.; Ipiña, 2017c, 258. or.; Lanero, 2009: 156-157. or.

Trenbidekoarena garbiketa frankistaren adar ugarietako bat denez, beste ogibide batzuetan emandako zigorren ehunekoekin alderatzea komeni da, 3. taulan ikus daitekeen bezala. Proporzionalki, Nafarroan lan zigorra jaso zuten trenbide-langileak Norteko batezbestekoaren heren bat inguru izan ziren (% 12,86-% 33,24). Azken ehuneko hau posta zerbitzuko langileek (% 29,06) eta irakasleek (% 25,55-% 30,98) jasotakoaren antzekoa da. Honek % 25-% 35aren bitarteko urkila suposatzen du, Gipuzkoako (% 25) eta Valentziako (% 27,98) irakasleekin zein posta funtzionarioekin (% 34,72) batera. Beherago, epaileak (% 14) eta fiskalak (% 22) daude. Askoz gorago, Gipuzkoa (% 57,28) zein Bizkaiko (% 59,62) posta zerbitzuko langileak eta Bizkaiko Foru Aldundiko funtzionarioak (% 60,45). Reinosan eta Avilésekin esan bezala, ez da kasualitatea zigor ehuneko handienak Kantauriko kostaldean kokatzea. Bordes eta Ipiñak nabarmendu bezala, langile hauen ihesaldi, ebakuazio eta askoren erbesteak ekarritako lanera ez itzultzea traizio bezala hartuak izan ziren, eta beraz, zigor handiena inposatu zitzaion.

Datu hauek Nafarroako trenbideetako lan-zigorraren laxotasun erlatiboaren hipotesia baieztatzen dute, salbuespen nabari batekin. Nafarroan, soilik burdinbideetara mugatzen da, posta langileen eta irakasleen zigor ehunekoak beste autonomia-er-

kidegoetan edota estatu-mailako batezbestekoetan emandakoen antzekoak baitira. Dena den, «laxotasun» honek ñabardura ugari ditu, errepresio kolpistak Nafarroako 1252 trenbide-langileetatik 40,¹⁸ guztizkoaren % 3,2a, erail zituelako. Probintzia osoan, 1935ko 346 000 biztanleetatik gutxienez 2934, guztizkoaren % 0,86a, judizioz kanpo erail zituen (Majuelo et al., 2021: 10. or.). Ia lau aldiz gutxiago.¹⁹

Agente errepresiboen balorazioak

Norte

Enpresa-epaitegiek agente errepresiboen txostenek emandako informazioaren arabera inputatzen zituzten haien karguak. Igaro gaitezen orain enpresa zein Guardia Zibilaren balorazio positiboen ehunekoak, geltokiko, ikertzera, eta udal bakoitzeko trenbide-langileen ezkerreko militantzien ehunekoarekin alderatzera. Horrela, hauen edukira hurbilduko gara, lan-zigorren ehuneko eskasa ulertzen saiatzearren.

Garbiketa-prozesu honetan txostenak idatzi zituzten agente errepresibo guztietatik, enpresa onberenekoa izan zen, hau bezalako prozesu batean izan zitekeen bezain beste. Eta, modu kontraesankorreen, lan honen arduraduna zen, Funtzionarioen Depuraziorako Legeak zehaztu bezala. Nortek espedienteak gidatzen zituen, enpresa-epaitegiak antolatu, prozesua zuzendu, eta langileari buruzko balorazioak idatzi. Itxurazko dikotomia hau aipatua izan da ere (Polo Muriel, 2015; Gorini eta Caballé, 2024; Aldave et al., 2023; Carrillo eta Rodríguez, 2024; Carrillo, 2024a; Aranguren, 2017), enpresak nahita aurrera eramandako estrategia izan zitekeela defendatuz. Gerrak iraun bitartean giza eta material galera handiak izan zituenez, langileak apropos ondo baloratu zituen. Horregatik, ehundaka langilek zigor leunagoa, edo batere zigorrik ez, jaso zuten. Honen harira, eta lehen esan bezala, Luis Santa Marinak (2009: 12-15. or.) Bartzelonan langileriaren kualifikazioa garrantzia handiko faktorea izan zela ondorioztatu zuen, absoluzioa edo zigor leunagoak jasoz, kaleratzearen orde.

Enpresaren aginduekin bat zetorren erabaki hau, langileen zerbitzu profesionalak arreta handiz aztertzea gomendatzen baitzuen. Miguel Muñozek (2009: 209, 212-213. or.) pareko ezaugarria antzeman zuen 1940ko abuztuaren 23an MZA enpresak, Norteren enpresa bikiak, onartutako legerian. Zigorrak «langilearen kultura maila, ogibidearen ezaugarriak eta karguaren garrantziaren» arabera izango ziren, «naturala baita hezkuntza gutxiko langile baten ardura enplegatu batena baino apalagoa izatea; eta buru batena, menpeko batena baino handiagoa». Zigorren % 78a hamahiru ogibideetan pilatu zen, guztiak kualifikaziorik gabeak, faktore eta makinistak salbu. Morroi, faktore eta langileak izan ziren proportzionalki zigor gehien jaso zituzten lanbideak, Espainian, Erribera eta Sakanaren arteko alderaketan (Carrillo, 2023: 57. or.) zein Altsasun (Carrillo, 2024a: 57. or.). Kualifikazioak lan-zigorretan eragina izan zuela baiesteko argudioak ditugu, baina trenbide nafarrera heda daitekeen, edota zein heinetan, ikustear dago.

Ezaugarri horiek Norte enpresak Nafarroan egindako balorazio positiboen batezbestekoa % 79,96koa izatea azaltzen lagun dezakete. Beste % 7,64a negatiboak izan ziren, % 11,59a ondorioz gabea, eta % 0,81a ed/ede. Laugarren taulan agertzen diren 22 geltokietatik, 19 lehen ehunekoaren gainetik daude. Salbuespen batzuk daude, Itza eta Untzue bezala, baina kuantitatiboki, garrantzitsuen Iruñea (% 58,33) da²⁰, 298 langile zituen geltokia baita, eta honek ondorio sendoak lortzen lagunduko gaitu. Zergatik ezberdintasun hau? Hasieran, enpresaren balorazioen eta lan-zigorren ehunekoaren arteko harreman zuzena zegoela uste izan zen (Carrillo, 2024b: 65-72. or.), baina geroago horrelakorik ez zegoela ondorioztatu zen (Carrillo, 2025: 6-7. or.). Zigor-ehuneko oso antzekoak izan zituzten geltokietan, enpresaren balorazio positiboen artean alde itzelak daude.

4. taula. Enpresaren balorazio positiboen ehunekoaren eta ezkerreko militantzia ezagunak²¹ zituzten langileen ehunekoaren arteko erlazioa, geltokiko²²

	Enpresaren balorazio positiboak	Ezkerreko militantziak
Allesbes	% 100,00	% 9,09
Arguedas	% 100,00	% 0
Tutera	% 96,10	% 10,11
Erriberri	% 94,12	% 0
Olazti	% 93,75	% 5
Noain	% 92,86	% 7,14
Arakil	% 91,67	% 8,33
Cortes	% 91,43	% 14,29
Biurrun-Olkotz	% 90,91	% 10
Tebas-Muru Artederra	% 90,00	% 10
Lodosa	% 88,89	% 5
Uharte-Arakil	% 87,50	% 0
Etxarri-Aranatz	% 85,71	% 7,14
Irurtzun	% 85,71	% 14,29
Castejón	% 85,54	% 27,56
Caparroso	% 84,62	% 0
Martzilla	% 84,21	% 31,58
Altsasu	% 82,68	% 5,08
Tafalla	% 82,14	% 10,71
Ribaforada	% 80,00	% 0
Itza	% 64,29	% 20
Untzue	% 61,54	% 46,15
Iruñea	% 58,33	% 32,08

Iturria: CDMH, AFD, Nafarroako tren geltokietako garbiketa espedienteak.

Balorazio positiboen arteko aldearen arrazoia espedienteek geltoki bakoitzean aipatutako militantzien ehunekoa izan zitekeen? Ikusi berri dugun bezala, soilik hein batean. Iruñeako geltokian, langile militanteen ehuneko handiena (% 32,08) eta, aldi berean, enpresaren balorazio positiboen ehuneko txikiena aurki ditzakegu (% 58,33), garrantzia eskasa duen Untzueko geltokia kenduz. Altsasu eta Castejón-

nen, aldiz, % 5,08 eta % 27,56ko langile militanteen ehunekoekin, hurrenez hurren, % 82,68 eta % 85,54ko balorazio positiboen ehunekoak izan zituzten. Ezin dezakegu harreman estatistiko zuzena dagoenik ondorioztatu, hipotesi hau indartzen zein ahultzen duten kasu ugari aurki baititzakegu. Enpresari dagokionez, guxtienez, militantzia ez zen balorazioetan garrantzia handiko elementua izan.

Bostgarren taularako, balorazioen ehunekoan analisi xeheago bat egin dut, militantzien arabera. Bederatzi taldetan sailkatu ditut ehuneko horiek, agente errepresiboek egindako aipamenaren arabera: militantzia sozialistak, komunistak, anarkistak, errepublikanoak, ezkerreko militantziak,²³ eskuineko militantziak,²⁴ militantzia ezezagunari aipamen zuzena, militantzia ez izateari aipamen zuzena, eta militantziari buruzko aipamenik ez. Argi eta garbi dago ezkerrearen ideologia ugarietako kideek eskuinekoek eta beste taldeek baino balorazio askoz negatiboagoak jaso zituztela. Bereziki nabarmena da komunismoa eta anarkismoarekin, lehenengoaren 11 kasuak ondorio sendoak lortzeko nahikoak ez diren arren. Errepublikanismoa, aldiz, salbuespena izan zen, ezkerren alde moderatuena baitzen, zentro zein zentro-eskuineko hainbat alderdi barne izanez ere. Ez litzateke harritzekoa izango Nortek militantzia hauei langileen alderdi zein sindikatuen kideetzi baino garrantzia guxtiago eman izana.

5. taula. Norteren balorazio positiboen ehunekoak, ezkerreko zein eskuineko militantzia motaren edo militantziaren aipamenaren arabera.

	Positiboa	Negatiboa	Ondoriorik gabea
Militantzia sozialista	% 44,14	% 17,62	% 37,24
Militantzia errepublikanoa	% 91,30	% 2,17	% 6,52
Militantzia anarkista	% 39,13	% 26,09	% 34,78
Militantzia komunista	% 27,27	% 72,73	% 0
Ezkerreko militantzia	% 52,68	% 17,86	% 29,46
Eskuineko militantzia	% 89,29	% 3,57	% 7,14
Militantziarik gabe	% 93,75	% 3,13	% 3,13
Militantzia ezezaguna	% 71,43	% 21,43	% 7,14
Militantziaren aipamenik gabe	% 88,19	% 3,85	% 6,93
Norteren batezbestekoa	% 79,96	% 7,94	% 11,59

Iturria: CDMH, AFD, Nafarroako tren geltokietako garbiketa espedienteak.

Utz ditzagun militantziak alde batera, momentuz, eta joan gaitezen enpresaren txostenen ezaugarri erruztatzaileetara. Balorazio hauen izaera hobeto ulertzeko, Santiago San Jose Vázquez²⁵ kasuaz baliatuko naiz. Valladoliden jaioa, Altsasuko geltokian langilea zen, eta UGTko kidea. 1936ko uztailaren 19an, Irunen lan egiten zegoen, eta handik Frantzia, Bartzelona eta Valentziara ihes egin zuen. Azkenik, Turiako hirian finkatu zen 1936ko abendutik gerra amaitu arte. 1939ko azaroaren 10ean, enpresaren hirugarren demarkazioko esplotazio ikuskatzaile nagusiak hurrengoia idatzi zuen: «[...] Sus servicios y conducta profesional hasta el 18 de julio

de 1936 eran buenos, siéndome ignoradas su ideología (*sic*) y actuación en la zona roja, por lo que me abstengo de formular propuesta».

Txosten honetatik, langilearen jokabide profesionalari eta ideologiari egindako aipamenak nabarmendu ditzakegu, enpresak Nafarroan gehien aipatutako ezaugarrietako bi. Lehenengoa konpainiak idatzitako 1112 txostenetatik 585etan, guztizkoaren % 52,61ean, agertzen da. 585 balorazio hauetatik, 574, guztizkoaren % 98,12a, positiboak izan ziren. Zerbitzu profesionalak hainbesteko proportzioan goresteak bere langileak positiboki baloratzeko interes propioa zuen enpresaren hipotesia indartzen du.

Ideologia, berriz, 393 alditan, guztizkoaren % 35,34an, nabarmentzen da. 176tan, guztizkoaren % 44,78an, ezkerreko ideiak zituzten langileak aipatzeko; 113tan, guztizkoaren % 28,75ean, eskuineko ideiak zituztenak; 53tan, guztizkoaren % 13,49an, apolitikoak zirenak; 51tan, % 12,98an, ideologia ezezagunekoak zirenak. Ez da datu ziztrinahain kontserbadoreazengerraurreko Nafarroan: 1936ko hauteskunde orokorretan, Eskuineko Blokeak botoen % 69,1a lortu baitzuen, Fronte Popularrak soilik % 21,7a, eta EAJk beste % 9,2a (AKT, 2018: 24. or.).

Guardia Zibila

Agentez alda dezagun. Zer idatzi zuen Guardia Zibilak ikertutako geltokietan? Honen balorazioen % 52,73a baino ez zen positiboa izan. Negatiboak % 9,73a izan ziren, ondoriorik gabeak % 34,09a, eta ed/ede % 3,45a. Seigarren taulan ikus daitekeen bezala, ikertutako 21²⁶ geltokietatik 8k ehuneko hura gaizkiagotzen dute, haien artean Nafarroako lau geltoki nagusietako hiruk: Altsasu (% 45,16), Iruñea (% 42,26) eta Castejónnek (% 38,17). Honek institutu armatuaren txostenek Norterenak baino izaera errepresiboagoa zutela adierazten du. Ez da batere harrigarria, etsai politikoen ikerketan eta jazarpenean hamarkadetako esperientzia zuen polizia-gorputz militarizatua baita.

6. taula. Guardia Zibilaren balorazio positiboaren ehunekoen eta ezkerreko militantzia ezagunak zituzten langileen ehunekoen arteko erlazioa, geltokiko.

	GZren balorazio positiboak	Ezkerreko militantziak
Erriberri	% 100	% 0
Tebas-Muru Artederra	% 100	% 0
Caparroso	% 83,33	% 7,69
Noain	% 78,57	% 0
Tafalla	% 76,92	% 3,57
Lodosa	% 75	% 5
Untzue	% 66,67	% 0
Biurrun-Olkotz	% 63,64	% 0
Martzilla	% 63,16	% 10,53
Ribaforada	% 57,14	% 33,33
Tutera	% 57,14	% 10,11
Olazti	% 56,25	% 10

Cortes	% 54,29	% 5,71
Alesbes	% 50	% 9,09
Arguedas	% 50	% 10
Etxarri-Aranatz	% 50	% 0
Altsasu	% 45,16	% 19,21
Irurtzun	% 42,86	% 21,43
Itza	% 42,86	% 0
Iruñea	% 42,26	% 42,66
Castejón	% 38,17	% 14,57

Iturria: CDMH, AFD, Nafarroako tren geltokietako garbiketa espedienteak.

Goiko taulan ageri den bezala, balorazio positibo hauei militantzien aldagaia gehitzen badiegu, laugarren irudian baino harreman estuagoa dagoela ikus dezakegu. Nafarroako geltoki nagusiak alderatzearen, Iruñean, langile militanteak % 42,66a ziren, eta Guardia Zibilaren balorazio positiboak % 42,26a; Castejónen, % 14,57a eta % 38,17a, hurrenez hurren; Altsasun, % 19,21a eta % 45,16a. Elkarren arteko harremana enpresarekin ikusitakoa baino handiagoa da, baina Iruñea saihestuz, ez da nahikoa erlazio estu bati buruz hitz egin ahal izateko.

Zazpigarren taulan bostgarrenaren sailkapen berbera erabili dut. Ondorioak berdinak dira, baina are nabariagoak: ezkerreko militanteen balorazio positiboaren ehunekoa ez da ezta % 13ra ere iristen, errepublikanoenak barne, Guardia Zibilarentzat salbuespena izan ez baitziren. Hauei dagokionez, institutuak 34 militantzia errepublikano aipatu zituen, enpresaren 46ak baino ia laurden bat gutxiago. Sozialismoa (145-152), komunismoa (11-14) eta anarkismoarekin (23-26), kopuruak oso antzekoak dira. Zenbakiei dagokionez, anarkisten (26 kasu) eta komunisten (14 kasu) presentzia eskasa den arren, balorazio bereziki negatiboak jaso zituzten, NOHDFak (Aldave et al., 2023: 14. or.) Altsasun ikusitako Bakuninen jarraitzaileen aurkako gogortasunaren parean.

7. taula. Guardia Zibilaren balorazio positiboaren ehunekoa, ezkerreko zein eskuineko militantzia motaren edo militantziaren aipamenaren arabera.

	Positiboa	Negatiboa	Ondoriorik gabea
Militantzia sozialista	% 12,5	% 25	% 62,5
Militantzia errepublikanoa	% 8,82	% 11,76	% 79,41
Militantzia anarkista	% 3,85	% 34,62	% 61,54
Militantzia komunista	% 7,14	% 28,57	% 64,29
Ezkerreko militantzia	% 12,82	% 22,22	% 64,96
Eskuineko militantzia	% 88,46	% 0	% 11,54
Militantziarik gabe	% 88,71	% 1,61	% 9,68
Militantzia ezezaguna	% 36,17	% 2,13	% 61,70
Militantziaren aipamenik gabe	% 63,37	% 6,17	% 25,10
GZren batezbestekoa	% 52,73	% 9,73	% 34,09

Iturria: CDMH, AFD, Nafarroako tren geltokietako garbiketa espedienteak.

Itzul gaitezen, beste agente honekin, txostenen ezaugarri erruztatzailen analisira. 1939ko azaroaren 20an, hurrengo idatzi zuen Altsasuko Guardia Zibilaren postuko komandanteak gure langile Santiago San Joséri buruz:

«[...] Santiago San José Vázquez era de buena conducta social en la política era gran entusiasta del socialismo como toda su familia [...].

A este individuo le sorprendió al Glorioso Movimiento estando de servicio en Irún [...] no se tiene noticia de que hiciera nada por pasar a la Zona del Generalísimo Franco; pues, de Irún pasó a Francia y de aquí hasta Valencia donde le cogió la terminación de la guerra [...].

Desde que se encuentra en esta localidad, no se le conoce ningún hecho que lo acredite su conformidad con nuestra Santa Causa, su actitud es expectativa (*sic*)».

Hitz hauetan, langilearen portaera sozialari eta ideologiari egindako erreferentziak azpimarratu ditzakegu. Nafarroa osoan, enpresak lehenengo 1112 txostenetatik 502tan, guztizkoaren %45,14an, aipatu zuen. 502 balorazio horietatik 470, guztizkoaren %93,63a, positiboak izan ziren. Guardia Zibilak, aldiz, 1100 txostenetatik 846tan, guztizkoaren %76,91n, aipatu zuen, eta horietatik 798, guztizkoaren %94,33a, positiboak izan ziren. Enpresarekin alderatuz, institutu armatuak askoz gehiagotan aipatu zuen portaera, baina balorazio positiboen ehunekoak oso antzekoak dira. Aipamenen kopuruaren aldea Guardia Zibilaren izaera errepre-siboak azal dezake, baina balorazio positiboen ehunekoen antza ikusita, badirudi polizia-gorputza izateak ez duela institutu armatuaren portaera guztiz azaltzen. Beraz, baieztapen hura ñabartzeko beharra dago.

Ideologiarena kasu ezberdina da. Enpresak 1112 txostenetatik 393tan, guztizkoaren %35,34an, aipatu bazuen, Guardia Zibilak 1100 txostenetatik 688tan, guztizkoaren %62,54an, egin zuen. Erreferentzia horietatik, 418, guztizkoaren %60,75a, ezkerreko langileei buruzkoak ziren; 173, guztizkoaren %25,14a, eskuineko langileei buruz; 67, guztizkoaren %9,74a, langile apolitikoei buruz; 17, guztizkoaren %2,47a, zalantzazko ideietako langileei buruzkoak; 13, guztizkoaren %1,89a, ideologia ezezaguneko langileei buruzkoak. Hemen, argi dago enpresarekin alderatzekotan ikus daitezkeen ezberdintasun absolutu zein proportzionalak Guardia Zibilak hamarkadetan zehar findutako izaera errepre-siboaren ondorioa direla. Garrantzia handiko elementua da hau, enpresa-epaitegiaren kargu-zerrenden gehiengoa polizia-gorputzak esandakoaz osatzen zelako, baita kontraesanak zeude-nean ere.

Institutu armatuaren hitzek eragina izan zuten, honek esandakoa frogatutzat eman baitzen. 1940ko otsailaren 2an, Santiago San José Vázquez Oviedora bortxaz lekualdatua izango zela erabaki zuen enpresa-epaitegiak. Baina epaiketa hauen analisisa geroari dagokio.

Ondorioak

Nafarroako trenbide-langileek beste autonomia-erkidegoetakoek baino zigor-ehuneko apalagoak izan zituzten. Analisi honetan, Guardia Zibilaren joera zigortzaileagoa ondorioztatu ahal izan dut, enpresarekin alderatuz (% 52,73-% 79,96). Enplegatuaeren portaera sozialari buruzko balorazioen kopuruan, eta aipatutako ezkerreko ideologia eta militantzien kopuru zein ehunekoetan argi eta garbi ageri da. Datu hauetatik bi ondorio atera ditzakegu: alde batetik, Nafarroa bezalako hain probintzia kontserbadorean, burdinbideetako langileen artean ezkerreko ideologia eta militantziak nagusi zirela ere, baina balorazio positiboan eta ezkerreko militantzien arteko zuzeneko harremanik ez dagoela; bestetik, bi agenteek ezkerreko militantzia ezagunak zituzten langileak negatiboki baloratzeko joera zutela, bereziki komunistak eta anarkistak. Etorkizunera begira, «salbuespen nafarrik» egon bazen ikertu nahi dut, zonalde leialean lan egiten zuten trenbide-langileek zonalde altxatukoak baino zigor-ehuneko handiagoak jasan zituzten jakiteko. Analisia findu nahiko nuke ere, proportzionalki zigortuenenak izandako ogibideak aurkituz, eta txostenen idazleen izenak aztertzen hasiz. Azkenik, txosten hauetan garrantzitsuak izan ziren beste elementuak zehaztu nahiko nuke.

Beti egokia den azken galdera batekin bukatuko dut: noraino fida gaitezke dokumentu hauek emandako informazioaz? Arlette Fargek (1991: 78. or.) duela asko esan zigula «salbuespen gutxirekin, dokumentua, testua edo agiritegia edozein egia-aren behin-betiko frogak ez direla». Erabilgarritasuna inolaz ere ez ukatuz, gerturatze kritikoa komeni da, iturri ororekin bezala. Esaterako, Guardia Zibilaren txosten batak Francisco Reina Felipe²⁷ CNT, PCE, UGT eta ELAko kide bezala deskribatzen zuen, guztiak aldi berean. Marino Comas Palacios²⁸ «alderdi komunistaren lerrotan sartu zen, C.N.T.ko zentroan». Ideia hauen azalezko eta aurreiritziz betetako eza- gutza batean oinarritutako testuak dira. haien begietan, ideología hauen arteko ezberdintasunik ez zegoen; guztiak Espainiaren aurkakoak zirenez, zigor bera merezi zuten.²⁹

Kasu zehatz batzuetan, dokumentuek gezurtu zutela froga dezakegu. Francisco Velaza Fernándezek³⁰ «jarduera politiko-sozial ona» izan zuten 1936ko uztailaren 18aren eta 1939ko apirilaren 1aren artean, «beti jarrera ezkertiarrekin». Rufino Vicuña Jacak³¹ portaera ona izan zuen gerraren ostean. Francisco Velaza Paternainen eraila izan zen 1936ko abuztuaren 28an 7 lankiderekin batera, eta bere hezur- rarak hobi komun batetik deshobiratuak izan ziren 2022ko uztailaren bukaeran.³² Rufino Vicuña, berriz, Etxarri-Aranatzetik Gipuzkoara ihes egin zuen, armada errepublikanoan sartu, eta borrokan hil, Balmasedan, 1937an.³³ Lan-gainkarga burokratikoak,³⁴ edota haien senideekiko pasibotasun zein mespretxua?

NOTAS

1. Artikulu hau «Nafarroako trenbideko langileen depurazioa Gerra Zibilean eta frankismoan: Altsasuko agente errepresiboen portaera» hitzaldiaren moldaketa eta zabaltzea da, 2025eko otsailaren 14an eta 15ean Iruñean ospatutako Historialari Gazteen I. Jardunaldietan aurkeztutakoa. Aldi berean, Nafarroako Gobernuak doktoratu aurreko kontratu baten bidez (BDNS: 779453) garatutako doktore-tesi baten parte da.
2. Hau da, estatuarenak ziren azpiegitura batzuk kudeatzeko honi diru kopuru bat ordaintzen zioten enpresak.
3. Lanera itzultzeko bi mota bereizten ditu Polo Muriel (2015): batetik, berronartzea (*readmisión*), langilearen garbiketa-prozesua gerra garaian garatu bazen, legeria mota batekin; bestetik, berrezartzea (*reingreso*), prozesua gerraostean garatu bazen, legeria ezberdinarekin.
4. Aniceto Ruiz Castillejo bezala, Tuterako geltokiko medikua, «alkandora zaharra», eta Estatu-kolpearen lehen egunetan hiri honetako alkatea. Manuel Hedillaren aldekoa zenez, heriotzera kondenatua izan zen, baina zigorra konmutatu zitzaion, eta erregimenarekin berriro adiskidetu ostean, FET y de las JONSeko Kontseilu Nazionalako kidea bezalako karguak izan zituen. Oroimen Historikoaren Dokumentu-Zentroa (CDMH), Depurazioaren Trenbide-Agiritegia (AFD), *Fondo Fundación de los Ferrocarriles Españoles_Francisco Polo Muriel*.
5. Ez zen arraroa Guardia Zibilak «ezkerrekoa» baina, aldi berean «ordenako pertsona» zen langile bati buruz hitz egitea, honen aurkako ondorioz izan gabe. Nafarroatik kanpo, Madrilera okupazio militar frankistan gauza bera dokumentatu du Alejandro Pérez-Olivaresek (2020: 116. or.).
6. Dena dela, haien kopurua oso txikia da. Eskuinean militantzietan sartzeak edo saihesteak hurrengo orrialdeetan deskribatutakoa ez luke batere aldatuko.
7. Decreto número 108 de 13 de septiembre de 1936 por el que se declara fuera de la Ley a los partidos o agrupaciones políticas del Frente Popular, funcionarios y empleados de empresas públicas, *Espainiako Babes Nazionalerako Batzordearen Aldizkari Ofiziala* (BOJDNE), 1936ko irailaren 16a, 1-2. or.; Decreto-Ley Dictando reglas para la separación definitiva del servicio de toda clase de empleados, *BOJDNE*, 1936ko abenduaren 9a, 349-350. or.; Ley de 10 de febrero de 1939 fijando normas para la depuración de funcionarios públicos, *Estatuko Aldizkari Ofiziala* (BOE), 1939ko otsailaren 14a, 856-859. or.; Decreto de 27 de febrero de 1939 sobre depuración de funcionarios de Corporaciones y Empresas concesionarias de Servicios públicos, *BOE*, 1939ko otsailaren 28a, 1157-1158. or. Lege hauetan eta beste batzuetan sakontzeko, Polo Muriel, 2015: 88-90, 173. or.
8. Nafarroako Oroimen Historikoaren Dokumentu Funtsak (NOHDF) lanarekin harreman zuzena zuten zigorrak bezala hartzen dituen gertakari errepresiboak, aldi baterako enplegu-soldaten etenaldiak, bortxazko lekualdaketak eta kaleratzeak bezala. Hau da, garbiketa-prozesu baten ondorioz ezarritako zigor oro. Ikusi Majuelo et al. 2019: 30-31. or.
9. Ikusi Adrián Pericetek (2023) duela gutxi egindako egoeraren azterketa.
10. <https://revistes.uab.cat/rubrica/issue/view/v14-n29>. Ikusi ere Alonsok, Javier Rodrigorekin batera, koordinatutako «Perpetradores, beneficiarios, espectadores, víctimas. La violencia de masas a través de sus actores: metodologías y casos de estudio» mahaia (<https://esdevenimientos.uv.es/120195/section/55716/xvii-congreso-de-la-asociacion-de-historia-contemporanea.html>), Historia Garaikideko Elkartearen (AHC) XVII. Kongresuak 2025eko uztailaren 10ean antolatutakoa.
11. Lanera zigorrarekin bueltatu ziren enpleguak eta kaleratutakoak barne hartzen ditut hemen.
12. «Zigorrik gabe itzuli» kategorian lanean zigorrik gabe berronartuak edo berrezarriak izan ziren langileak barne hartzen ditut. «Zigorrarekin itzuli» kategorian, aitzitik, zigorrarekin berronartuak edo berrezarriak.
13. Taula honetan, eta hurrengo hiru paragrafoetan, kaleratzeez hitz egitera mugatuko naiz. Iturrietako ugari lan-zigor honetara mugatzen diren arren, geltoki edota lurralde hauetan garbiketa-prozesuak izandako indarrera hurbiltzeko aldagai aproposa dela uste dut.
14. Lehenengo ehunekoak 1936ko uztailaren 31n kaleratutako langileak dira. Bigarrena, horiek eta «apercibidos de expulsión» izandakoak. Depurazioek, ordea, jarraitu zuten, eta ziurrenik benetako ehunekoak ezberdinak izango dira, Mallorcako Gobernu Zibilak hurrengoak agindu baitzuen: «el personal despedido sin avisar previamente a este Gobierno Civil y sin que haya motivo legal en contra, deberá ser admitido otra vez, ya que son precisamente las grandes empresas y compañías las más indicadas en no dificultar la labor social del gobierno». Fernández Pizà, 2023: 104. or.

15. Lehenengo ehuneko 1936ko abuztuko langileen arabera. Bigarrena, irakaste publikoen behin-behineko kopuru osoaren arabera, 1936-1942 bitartean. Berruezo, Casanova eta Ema, 2023: 296-297. or.
16. Epailen % 63a ez zen depuratua izan. Hauek kenduz, ehuneko % 37,84koa da.
17. Fiskalen % 59a ez den garbitua izan. Hauek saiestuz, ehuneko % 37,29koa da.
18. NOHDF, [https://memoria-oroimena.unavarra.es/\(2025eko urriaren 16an kontsultatua\)](https://memoria-oroimena.unavarra.es/(2025eko%20urriaren%2016an%20kontsultatua)).
19. Nortekoak ez ziren beste trenbide-langileak erailak izan ziren ere, Plazaolako Félix Herranz (NOHDF, ID 1843) eta Antonino Muguero (ID 2837) bezala.
20. CDMH, AFD, Nafarroako tren geltokietako garbiketa espedienteak. Aurkakoa zehazten ez badut, henedik aurrera nire iturri nagusia izango da.
21. «Militantzia ezagunak» kontzeptua erabiltzen dut NOHDFak nabarmendutako zailtasun metodologikoak direla eta. Ikusi Majuelo et al., 2021: 24-25. or.
22. 10 langile baino gutxiagoko geltokiak taulatik kendu ditut, tamaina eta garrantzia eskasa direla eta.
23. Euskal nazionalismoa kategoria propioa bezala baztertu dut, kopuru oso txikia baita, baina «ezkerreko militantzien» barnean sartu dut. «Fronte Popularreko» militantziak kategoria honen barnean daude ere (koalizioko alderdi bateko kideak, zehazki zein den zehazten ez bada ere), «ezkerretan militatzen zuen» esaldia edota eratorriekin batera.
24. Falangismoaren (FET-JONS, CNS), tradizionalismoaren (Alderdi Tradizionalista, Elkartea Tradizionalista) eta katolizismo politikoaren (Langile Katolikoen Sindikatua, CEDA) familia ideologikoak barne hartzen ditut, baita eskuineko beste alderdi edo erakundeak (Batasun Patriotikoa, etab.) ere.
25. CDMH, AFD, 334/1525. Beste langile baten prozesuaren garapena ikusteko, Carrillo, 2024b.
26. 50 dira, baina berriro ere 10 langile baino gutxiagokoak baztertu ditut.
27. CDMH, AFD, 572/7076.
28. CDMH, AFD, 584/14640.
29. Layanak (2021: 222. or.) ere aipatu bezala.
30. CDMH, AFD, 584/14610.
31. CDMH, AFD, 578/10902.
32. NOHDF, ID 4067.
33. NOHDF, ID 4096.
34. Bordes (2009: 241-242. or.), Pérez-Olivares (2020: 74-75. or.), Layana (2021: 167-168, 182, 196. or.) eta Álvaro Dueñasek (2006: 265-274. or.) haien ikerketa-lerroetan ere nabarmendutakoak. Trenbide-langileetara hedagarria da, prozesua bereziki 1941ean metatu baitzen; espediente bakoitzak 75 egun iraun zuen, batezbesteko, eta hiru laurdenek hiru hilabete baino gutxiago, enpresaren balorazioa jaso eta hiru aste inguru ondoren itxiz.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

LEHEN MAILAKO ITURRIAK

- ESPAINIAKO BABES NAZIONALERAKO BATZORDEAREN ALDIZKARI OFIZIALA (1936ko abenduaren 9a), *Decreto-Ley Dictando reglas para la separación definitiva del servicio de toda clase de empleados*. https://www.boe.es/diario_gazeta/comun/pdf.php?p=1936/12/09/pdfs/BOE-1936-51.pdf helbidetik eskuratua.
- (1936ko irailaren 16a). *Decreto número 108 de 13 de septiembre de 1936 por el que se declara fuera de la Ley a los partidos o agrupaciones políticas del Frente Popular, funcionarios y empleados de empresas públicas*. https://www.boe.es/diario_gazeta/comun/pdf.php?p=1936/09/16/pdfs/BJD-1936-22.pdf helbidetik eskuratua.
- ESTATUKO ALDIZKARI OFIZIALA (1939ko otsailaren 14a). *Ley de 10 de febrero de 1939 fijando normas para la depuración de funcionarios públicos*. <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-1939-1477> helbidetik eskuratua.
- (1939ko otsailaren 28a). *Decreto de 27 de febrero de 1939 sobre depuración de funcionarios de Corporaciones y Empresas concesionarias de Servicios públicos*. https://www.boe.es/gazeta_dias/1939/02/28/pdfs/BOE-1939-59.pdf helbidetik eskuratua.

CENTRO DOCUMENTAL DE LA MEMORIA HISTÓRICA. *Archivo Histórico de la Depuración*.
 FUNDACIÓN DE LOS FERROCARRILES ESPAÑOLES. *Archivo Histórico Ferroviario*.

BIGARREN MAILAKO ITURRIAK

AKT (2018): *Navarra 1936. De la esperanza al terror*. Tafalla: AKT.

ALDAVE, Esther, OVIEDO, Daniel, RODRÍGUEZ, Izaskun, VELASCO, Lisabe, GARCÍA FUNES, Juan Carlos, & SATRUSTEGI, Imanol (2023): «Cautivo y depurado. La violencia política desplegada contra el personal ferroviario de Altsasu-Alsasua durante la Guerra Civil Española y el primer Franquismo». *IX Congreso de Historia Ferroviaria*: Mataró. <https://asihf.org/wp-content/uploads/2023/10/aldave.pdf> helbidetik eskuratua.

ÁLVARO DUEÑAS, Manuel (2006): *“Por ministerio de la ley y voluntad del Caudillo”. La Jurisdicción Especial de Responsabilidades Políticas (1936-1945)*. Madril: Centro de Estudios Políticos y Constitucionales.

ARANGUREN, Mirari (2017): *Burdinbideko langileen depurazioa frankismo garaian (Olazti, Nafarroa)* (Gradu Amaierako Lana). Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

ARÓSTEGUI, Julio (2006): *Por qué el 18 de julio... Y después*. Bartzelona: Flor del Viento Ediciones.

BARANDIARÁN, Alberto (2021): *Gurea falangista zen*. Zarautz: Susa.

BARRUSO, Pedro (2005): «De los tribunales populares a las comisiones depuradoras. Violencia y represión en Guipúzcoa durante la guerra civil y el primer franquismo (1936-1945)». *Pasado y memoria: Revista de historia contemporánea* (4), 49-64. or. <https://doi.org/10.14198/PASADO2005.4>

BERRUZO, Reyes, CASANOVA, Juan José, & EMA, Francisco Javier (2023): *El proceso de depuración de la enseñanza pública en Navarra, 1936-1976*. Iruñea: Nafarroako Gobernuia.

BORDES, Juan Carlos (2009): *El servicio de Correos durante el régimen franquista (1936-1975). Depuración de funcionarios y reorganización de los servicios postales*. Madril: Fundación Francisco Largo Caballero.

CARRILLO, Aitor (2023): «La depuración del personal ferroviario durante la Guerra Civil y el franquismo: una primera aproximación a partir de la comparación entre Tudela y el valle de la Sakana (Navarra)». *Memoriapaper(ak)* (14): <https://academica-e.unavarra.es/bitstream/handle/2454/45604/CARRILLO%2c%20A.%20La%20depuraci%c3%b3n%20del%20personal%20ferroviario%20durante%20la%20Guerra%20Civil%20y%20el%20franquismo%20%28versi%c3%b3n%20Memoriapaperak%2014%29.pdf?sequence=3&isAllowed=y> helbidetik eskuratua.

CARRILLO, Aitor (2024a): *Nafarroako trenbideko langileen depurazioa Gerra Zibilean eta frankismoan: Altsasuko agente errepresiboan portaera* (Master Amaierako Lana). Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

—(2024b): «Altsasuko trenbideko langileen depurazioa Gerra Zibilean eta frankismoan: Jesús Melladoren kasua». *Sancho el Sabio: revista de cultura e investigación vasca* (47), 58-85. or. <https://doi.org/10.55698/SS47-2024-03>.

—(2025): «Nafarroako trenbide-langileen garbiketa-prozesua Gerra Zibilean eta frankismoan» (argitaragabea).

CARRILLO, Aitor & RODRÍGUEZ, Izaskun (2024): «La depuración del personal ferroviario navarro durante la Guerra Civil y el franquismo: una comparación entre la Ribera y el valle de la Sakana». *Memoriapaper(ak)* (18). <https://academica-e.unavarra.es/bitstream/handle/2454/47686/Memoriapaper%28ak%29%2018.pdf?sequence=3&isAllowed=y> helbidetik eskuratua.

- CUESTA, Josefina (2009): *La depuración de funcionarios bajo la dictadura franquista (1936-1975)*. Madril: Fundación Francisco Largo Caballero.
- FERNÁNDEZ PIZÀ, María Antonia (2023): *La Companyia dels Ferrocarrils de Mallorca durant la Guerra Civil: la seva contribució a la defensa passiva de l'illa*. Palma de Mallorca: Govern de les Illes Balears. <https://dialnet.unirioja.es/descarga/libro/969038.pdf> helbidetik eskuratua.
- FERNÁNDEZ, Juan Manuel, & AGULLÓ, María del Carmen (1999). *Maestros valencianos bajo el franquismo*. Valentzia: Institució Alfons el Magnànim.
- GARCÍA-SANZ MARCOTEGUI, Ángel (2007): *Diccionario biográfico sobre el socialismo histórico navarro (I)*. Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
—(2012): *Diccionario biográfico del socialismo histórico navarro (II)*. Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- GARCÍA-SANZ MARCOTEGUI, Ángel, & GONZÁLEZ GIL, Ana María (2015): *Diccionario biográfico del socialismo histórico navarro (III)*. Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
—(2019): *Diccionario biográfico sobre el socialismo histórico navarro (IV)*. Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
— (2021): *Diccionario biográfico sobre el socialismo histórico navarro (V)*. Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
—(2023): *Diccionario biográfico sobre el socialismo histórico navarro (VI)*. Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- GÓMEZ, Gutmaro, & MARCO, Jorge (2011): *La obra del miedo. Violencia y sociedad en la España franquista (1936-1950)*, Bartzelona: Península.
- GÓMEZ CALVO, Javier (2013): *Purgados. La depuración franquista en la Diputación de Álava*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.
- GORINI, Carles & CABALLÉ, Eduard (2024): *Ferroviaris en guerra. Revolució, guerra civil i repressió franquista als ferrocarrils catalans de via estreta*. Lleida: Pagès Editors.
- IPIÑA, Aritz (2017a): *La depuración y represión franquista de las empleadas y empleados municipales del Ayuntamiento de Bilbao (1936-1976)*. Bilbo: Bilboko Udala.
—(2017b): *La depuración de las empleadas y empleados municipales en Bizkaia durante la Guerra Civil y la dictadura franquista (1936-1976)*. Gasteiz: IVAP.
—(2017c): *Represión y terror franquista en la Diputación de Bizkaia: fusilamientos y depuración (1936-1976)*. Iruñea: Pamiela.
- JIMENO JURÍO, José María (2020a): *La represión en Navarra (1936-1939): trabajo de campo y archivo (finales de 1974-principios de 1981). Tomo I. Ablitas-Marcilla*. Iruñea: Pamiela.
—(2020b): *La represión en Navarra (1936-1939) Tomo II. Mélida-Ziordia: Trabajo de campo y archivo (finales de 1974-principios de 1981). Tomo II. Mélida-Ziordia*. Iruñea: Pamiela.
—(2021a): *La represión en Navarra (1936-1939): trabajo de campo y archivo (2ª parte) (1973-1983). Tomo III. Abárzuza-Huarte*. Iruñea: Pamiela.
—(2021b): *La represión en Navarra (1936-1939). Tomo IV. Ibero-Zuza. Apéndice de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa*. Iruñea: Pamiela.
- LANERO, Mónica (2009): «De jueces y docentes: reflexiones sobre las lógicas y los tiempos de la depuración administrativa», in Josefina Cuesta (koord.), *La depuración de funcionarios bajo la dictadura franquista* (139-159. or.). Madril: Fundación Francisco Largo Caballero.
- LAYANA ILUNDAIN, César (2021): *Expolioycastigo: la represión económica en Navarra, 1936-1945... 1966*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- MAJUJUELO, Emilio, MENDIOLA, Fernando, GARMENDIA, Gotzon, PIÉROLA, Gemma, GARCÍA FUNES, Juan Carlos, YÁNIZ, Edurne, PÉREZ, Nerea, BARRENECHEA, Edurne, RODRÍGUEZ, Iosu, SESMA, Rubén,

- BUSTINCE, Humberto (2019). «Gertakari errepresiboak kuantifikatzea: Nafarroako Memoria Historikoaren Dokumentu Funtsaren azalpena eta erronkak». *Memoriapaper(ak)* (5). <https://academica-e.unavarra.es/server/api/core/bitstreams/4ba9183e-4eca-4ff2-bc41-684333ae3ce1/content/helbidetik/eskuratua>.
- MAJUJUELO, Emilio, MENDIOLA, Fernando, PÉREZ, Nerea, OVIEDO, Daniel, ALDAVE, Esther, PIÉROLA, Gemma, GARCÍA FUNES, Juan Carlos, SATRUSTEGI, Imanol, RODRÍGUEZ, Izaskun, INDURÁIN, Alfonso (2021): «Víctimas mortales de la represión en Navarra durante la guerra civil y el primer franquismo (1936-1948)». *Memoriapaper(ak)* (10). https://academica-e.unavarra.es/bitstream/handle/2454/40514/2021_Majuuelo_et_al_memoriapaperak_10.pdf?sequence=4&isAllowed=y helbidetik eskuratua.
- MEMORIA HISTÓRICA FERROVIARIA (2021): *Ferrovias sancionadas en el proceso de depuración en aplicación de la Ley de Responsabilidades Políticas, promulgada el 9 de febrero de 1939*. <https://memoriahistoricaferroviaria.org/wp-content/uploads/2021/06/ListadoMujerescondenadas.pdf> helbidetik eskuratua.
- MENDIOLA, Fernando (2017): «Of Firms and Captives. Railway Infrastructures and the Economics of Forced Labour (Spain, 1937-1957)». *Revista de historia industrial* (68), 165-192. or. https://media.timtul.com/media/web_aehe/dt-aehe-1405_20240108094721.pdf helbidetik eskuratua.
- MIKELARENA, Fernando (2015): *Sin piedad. Limpieza política en Navarra 1936. Responsables, colaboradores y ejecutores*. Iruñea: Pamiela.
- (2025): *Ideología identitaria de los vencedores. Eladio Esparza, Diario de Navarra y el navarrismo foralcatólico*. Iruñea: Pamiela.
- MORENO, Belén, MUÑOZ RUBIO, Miguel, & POLO MURIEL, Francisco (2023): «La represión de las trabajadoras ferroviarias durante la Guerra Civil y franquismo. Un estudio cualitativo». *IX Congreso de Historia Ferroviaria*. Mataró. https://asihf.org/wp-content/uploads/2023/10/MORENO_MUNOZ_POLO.pdf helbidetik eskuratua.
- MORENTE, Francisco (1997): *La escuela y el estado nuevo: la depuración del magisterio nacional (1936-1943)*. Valladolid: Ámbito Ediciones.
- MUÑOZ RUBIO, Miguel (2009): «Los ferroviarios bajo “presunción de culpabilidad”. La depuración franquista en el ferrocarril español», in Josefina CUESTA (koord.), *La depuración de funcionarios bajo la dictadura franquista (1936-1975)* (200-215. or.). Madrid: Fundación Francisco Largo Caballero.
- (2011): *Organizaciones obreras y represión en el ferrocarril: una perspectiva internacional*. Madrid: Fundación de los Ferrocarriles Españoles.
- OLAIZOLA, Juan José (2009): «1936. Represión y reconversión en el ferrocarril del Urola». *V Congreso de Historia Ferroviaria*. Palma de Mallorca: Fundación de los Ferrocarriles Españoles. https://www.docutren.com/historiaferroviaria/PalmaMallorca2009/pdf/030204_Olaizola.pdf helbidetik eskuratua.
- OSTOLAZA, Maitane (1996): *El garrote de la depuración. Maestros vascos en la Guerra Civil y el primer franquismo (1936-1945)*. Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- OVIEDO, Daniel, ALDAVE, Esther, GARCÍA FUNES, Juan Carlos & SATRUSTEGI, Imanol (2025): «Violence and the Displacement of Rail Workers of Altsasu-Alsasua in the Spanish Civil War and its Aftermath». *Culture & History Digital Journal*, 13 (2). <https://doi.org/10.3989/chdj.2024.519>
- PÉREZ-OLIVARES, Alejandro (2020): *Madrid cautivo. Ocupación y control de una ciudad (1936-1948)*. Valentzia: Universitat de València.

- PERICET, Adrián (2023): «Estado de la cuestión sobre los victimarios franquistas en la cultura española del cambio al siglo XXI». *Pasado y memoria: Revista de historia contemporánea* (26), 308-331. or. <https://doi.org/10.14198/pasado.21461>
- POLO MURIEL, Francisco (2015): *La depuración del personal ferroviario durante la Guerra Civil y el franquismo (1936-1975)* (sarbide irekiko doktore-tesia). Madril: Universidad Autónoma de Madrid. https://repositorio.uam.es/bitstream/handle/10486/669730/polo_muriel_francisco.pdf?sequence=4&isAllowed=y helbidetik eskuratua.
- PRESTON, Paul (2011): *El holocausto español: Odio y exterminio en la Guerra Civil y después*. Barcelona: Debate.
- REIG TAPIA, Alberto (1982): *La represión franquista y la guerra civil. Consideraciones metodológicas, instrumentalización política y justificación ideológica* (sarbide irekiko doktore-tesia). Madril: Universidad Complutense de Madrid. <https://docta.ucm.es/entities/publication/1b7e46d0-3287-4875-b817-b41eb8e3d5ed> helbidetik eskuratua.
- RODRIGO, Javier (2001). «La bibliografía sobre la represión franquista: hacia el salto cualitativo». *Spagna contemporanea* (19), 151-169. or. <https://www.spagnacontemporanea.it/index.php/spacon/article/download/578/489/1092> helbidetik eskuratua.
- RODRÍGUEZ BARREIRA, Óscar (2015): *Pupitres vacíos. La escuela rural de postguerra. Almería, 1939-1953*. Almería: IEA.
- SÁNCHEZ PÉREZ, Francisco (2013): «Documentos elaborados por el General de Brigada Emilio Mola Vidal, comandante militar de Navarra, para la preparación del golpe de Estado de julio de 1936», in Francisco SÁNCHEZ PÉREZ, *Los mitos del 18 de julio* (341-367. or.). Barcelona: Crítica.
- SANTA MARINA, Luis (2009): «La depuración del personal en las compañías de metro de la ciudad de Barcelona: identificación socioprofesional de los colectivos afectados». *V Congreso de Historia Ferroviaria*. Palma de Mallorca: Fundación de los Ferrocarriles Españoles. https://www.docutren.com/historiaferroviaria/PalmaMallorca2009/pdf/030201_Santa%20Marina.pdf helbidetik eskuratua.
- THOMAS, Hugh (1976): *La guerra civil española*. Barcelona: Grijalbo.
- URRIZOLA, Ricardo (2017): *Consejo de guerra. Injusticia militar en Navarra, 1936-1940*. Tafalla: Txalaparta.

LABURPENA

1936-1942 bitartean, Espainiako Gerra Zibilean eta gerraostean, Espainiako burdinbi-deetan enplegatutako langile guztiek garbiketa-prozesu masibo bat pairatu zuten. Haien aurrekari eta portaera politikoak ikertu ondoren, Aginte Militarrak eta, 1939tik aurrera, enpresa-epaitegi batek langile hauen patua erabakiko zuen: lanera itzuli, zigorrarekin edo zigorrik gabe, edo kaleratuak izan.

Testu honen helburua trenbide-langileen depurazio-espediten analisia egitea da, agente errepresiboek idatzitako balorazioei arreta berezia jarriz. Balorazio txostenak kategoria ezberdinetan sailkatuko ditut, ezkerreko militantzia eta balorazio positiboan arteko harremanik badagoen zehazteko. Azkenik, dokumentuetan aipatutako ezaugarrien azterketa egingo dut, agenteen interesak eta aipamenak ulertzearren.

HITZ GAKOAK: trenbide-garbiketa, *Perpetrator Studies*, frankismoa, Nafarroa, errepresio ekonomikoa.

RESUMEN

Entre 1936-1942, durante la Guerra Civil española y la posguerra, todos los ferroviarios españoles sufrieron un proceso masivo de depuración. Tras investigar sus antecedentes y comportamientos políticos, la Autoridad Militar y, tras 1939, un juzgado de empresa, decidía su destino: retornar al trabajo, con o sin sanción, o ser despedido.

El objetivo de este texto es realizar un análisis acerca de los expedientes de depuración ferroviarios, prestando especial atención a las valoraciones realizadas por los principales agentes represivos. Clasificaré los informes de valoración en diferentes categorías, para especificar si hubo relación entre militancias de izquierdas y valoraciones positivas. Finalmente, analizaré las características mencionadas en los documentos, de cara a entender las menciones e intereses de los agentes.

PALABRAS CLAVE: depuración ferroviaria, *Perpetrator Studies*, franquismo, Navarra, represión económica.

ABSTRACT

Between 1936-1942, during the Spanish Civil War and the postwar period, all the Spanish railway workers were subjected to a massive purge process. After analysing their political records and behaviours, the Military Authority and, after 1939, an enterprise court, would decide their fate: returning to their jobs, sanctioned or not, or being fired.

This text's aim is to analyse the railway purge files, paying special attention to the valuations made by the main repressive agents. I will classify the valuation reports in different categories, in order to clarify if there was any direct relationship between left-wing militances and positive valuations. Finally, I will analyse the elements mentioned in the documents, to understand the agents' interests and mentions.

KEY WORDS: railway purges, *Perpetrator Studies*, Francoism, Navarre, economic repression.